


# Oinarrizko gaitasunak



Zientzia-, teknologia-  
eta osasun-kulturarako  
gaitasuna



Hizkuntza-komunikaziorako  
gaitasuna



Matematikarako  
gaitasuna



Gizarterako eta  
herritartasunerako  
gaitasuna

## Material didaktikoa

Lehen Hezkuntza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN



# KONPONBIDE BILA GABILTZA ELKARRIZKETAK

## **Proiektu bateratua**

**Euskara eta literatura arloa lantzeko sekuentzia  
didaktikoa. Lehen Hezkuntza 4. maila**

**PROIEKTU BATERATUAREN BI SEKUENTZIA DIDAKTIKOEEN LAN-ESKEMA  
ESQUEMA DE TRABAJO DE LAS DOS SECUENCIAS DIDÁCTICAS DEL  
PROYECTO INTEGRADO**

---

**Arloak:** Euskara eta Literatura, Lengua Castellana y Literatura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera

**Gaia:** Bazterkeriaren aurka / Contra la discriminación

**Maila/Nivel:** LH 4. maila/ 4º de E. Primaria

**Saio-kopurua:** 8 saio arlo bakoitzean

**Nº de sesiones:** 8 sesiones en cada área

**Proposamenaren testuingurua**

Mundu globalizatu honetan, pertsonen mugikortasuna eta kultura, gizarte, arraza eta ohituren aniztasuna dira nagusi. Aniztasun horren aurrean jarrerak zaindu, aurreiritziak apurtu eta sarritan gertatu ohi diren bazterkeriak saihestu egin behar dira. Aniztasuna aberastasun gisa hartu behar dugu eta hala ulertarazi ikasleei, hau da, gizaki guztiak berdinak garela eta eskubide eta aukera berdinak izan behar ditugula.

Proiektu bateratu honetan Gizarterako eta Herritartasunerako gaitasunaren garapenari laguntzeko sekuentzia didaktiko bi proposatzen dira: *Konponbide bila gabilta* eta *Normas de convivencia*. Abenduaren 18an migratzaileen nazioarteko eguna ospatzen da eta egun horri lotuta erabil liteke proposamen didaktiko bateratu hau. Proiektuko bi sekuentzia didaktikoen bidez ikasleek elkarrekin konpontzeko arauak idatziko dituzte gaztelania arloan eta elkarriketak eginez hizkuntzen eta ohituren inguruan hausnartuko dute euskara arloan. Azken ekoizpenak (elkarriketak eta dekalogoak) horma-irudi digital batean argitaratuko dituzte.

***Konponbide bila gabilta* sekuentzian landuko diren oinarritzko gaitasunak:**

- ✓ **Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna** (jarduera guztietan)
- ✓ **Ikasten ikasteko gaitasuna:** 1., 3., 4., 7. jardueretan
- ✓ **Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna:** 3. eta 6. jardueretan.
- ✓ **Gizarterako eta Herritartasunerako gaitasuna:** 0 jardueran, 1., 2. eta 3. eta 6. jardueretan..

***Normas de convivencia*. Competencias básicas trabajadas:**

- ✓ **Comunicación lingüística:** todas las actividades.
- ✓ **Aprender a aprender:** 4, 7, 8.
- ✓ **Tratamiento de la información y competencia digital:** 1 y 7
- ✓ **Competencia social y ciudadana:** 0, 1, 2, 3, 4, 6,

**Helburu didaktikoak:**

- ✓ Ahozko eta idatzizko testuak (elkarrizketak eta dekalogoak) ulertzea eta interpretatzea.
- ✓ Elkarrizketetan parte-hartze egokia izatea eta lankidetzaren arauak errespetatzea.
- ✓ Dekalogoen eta elkarrizketen oinarriko zenbait ezaugarriren inguruan hausnartzea
- ✓ IKTak modu eraginkorrean erabiltzea, informazioa bilatzeko zein testuak sortzeko eta berrikusteko.
- ✓ Testuak planifikatzea komunikazio egoeraren arabera.
- ✓ Testuak idatzi, berrikusi eta zuzentzea, aurrez ezarritako arauak jarraiki.
- ✓ Eskolan lantzen diren beste hizkuntzetan ikasitakoa erabiltzea testu berriak sortzeko.
- ✓ Norberaren kulturaren ezaugarriak ezagutzea eta balioestea bai eta beste herri, arraza eta talde batzuen kulturenak ere; eta horiek guztiak errespetatzea.
- ✓ Gatazkak badirela aintzatestea eta desberdintasunak gainditzen laguntzeko baliabide gisa erabiltzea.

**Edukiak**

- ✓ Inguruko hizkuntzen, kulturen eta ohituren aniztasuna.
- ✓ Berdinen arteko bereizkeriaren aurkako jarrera kritikoa.
- ✓ Elkarrizketen eta araudien analisia.
- ✓ Aurre planifikaziotik abiatuta, ahozko elkarrizketen eta araudien ekoizpen prozesua.
- ✓ Norberaren eta ikaskideen ekoizpenen berrikusketa.
- ✓ IKTen erabilera.
- ✓ Norberaren testuak modu koherentean eta egokian aurkezteko interesa.
- ✓ Lankidetzan aritzeko interesa eta jarrera egokia
  
- ✓

***Konponbide bila gabiltza. Jardueren segida:***

**Planifikazioa**

Motibazioa. Berdinak ala desberdinak gara? Zer dugu berdina? Zer desberdina?

**Gauzatzea**

1. Gure hizkuntzak eta gure ohiturak. Zeintzuk? Nolakoak?
2. Nola konpondu elkarrekin?
3. Badakigu zer egin arazoak konpontzeko. Pertsona helduekin hitz egingo dugu!
4. Nolako galderak? Galderak egiten ikasiko dugu.
5. Elkarrizketak grabatu eta egindakoa ebaluatzen.

**Erabiltzea**

6. Horma-irudi digitala sortzen.
7. Zer ikasi dut?

**Normas de convivencia . Secuencia de Actividades:****Planificación**

Motivación

**Realización**

1. ¿Podemos convivir las personas diferentes?
2. Analizando decálogos
3. ¿Qué tenemos que hacer para respetarnos?
4. Seleccionamos nuestras normas de convivencia
5. Escribimos las normas de convivencia

**Aplicación**

6. Corregimos nuestras normas
7. Nos comprometemos a respetar

**Ebaluazio-adierazleak**

- ✓ Ea parte-hartzen duen inguruan dagoen aniztasunaren inguruko hausnarketan.
- ✓ Ea ahozko eta idatzizko elkarrizketen eta arauen ezaugarriak ezagutzen dituen.
- ✓ Ea informazio egokia bilatu eta hautatzen duen azken ekoizpenean erabiltzeko.
- ✓ Ea elkarrizketen eta arauen oinarriko zenbait ezaugarriren inguruan hausnartzen duen eta horiek aplikatzen dituen.
- ✓ Ea elkarrizketak eta arauak taldean planifikatzen dituen komunikazio egoera kontuan hartuta.
- ✓ Ea beste kideekin batera ikasgelako jardueretan gogotsu parte-hartzen duen, jarrera egokiz, lankidetzara arauak errespetatuz.
- ✓ Ea testuak idatzi, berrikusi eta zuzentzen dituen aurrez ezarritako araei jarraiki.
- ✓ Ea IKTak modu eraginkorrean erabiltzen dituen elkarrizketak eta arauak grabatzeko, idazteko eta jakinarazteko.
- ✓ Ea norberaren kulturaren ezaugarriak ezagutu eta balioesten dituen bai eta beste herri, arraza eta talde batzuen kulturenak ere.
- ✓ ...

**Ebaluazio-tresnak**

- ✓ Landuko den testu-generoari buruzko informazioa biltzeko txantiloiak: 2 (es) 1(eus)
- ✓ Zirriborroaren eta azken ekoizpenaren inguruko ebaluazioa gauzatzeko txantiloiak 4, 7, 8, (es):4, 5, 6, 7 (eu)
- ✓ Irakasleak erabakiko duen beste edozein tresna

# KONPONBIDE BILA GABILTZA

## ELKARRIZKETAK

### Jarduerak



#### Motibazioa

**Berdinak ala desberdinak gara? Zer dugu berdin? Zer desberdin?**

1. **jarduera.** Gure hizkuntzak eta gure ohiturak. Zeintzuk? Nolakoak?
2. **jarduera.** Nola konpondu elkarrekin?
3. **jarduera.** Badakigu zer egin arazoak konpontzeko. Pertsona helduekin hitz egingo dugu!
4. **jarduera.** Nolako galderak? Galderak egiten ikasiko dugu.
5. **jarduera.** Elkarrizketak grabatzen.
6. **jarduera.** Horma-irudi digitala sortzen.
7. **jarduera.** Zer ikasi dut?

## Berdinak ala desberdinak gara? Zer dugu berdin? Zer desberdin?



Gelako kideei begiratu, gelatik kanpoko lagunengan pentsatu: neskak, mutilak, altuak, baxuak, beltzaranak, ilehoriak .... Batzuk berbatiak, beste batzuk, berriz, isilak. Honek asko irakurtzen du, horrek batere ez. Ikasle ikastunak eta alfer xamarak...  
**DESBERDINAK GARA.**

Hiruko taldeak egin eta elkarrekin pentsatu: zein dira zuen artean eta taldean dauden desberdintasunak?

.....  
.....  
.....

.....  
.....  
.....

Desberdinak izan daitezke hizkuntzak, ohiturak... Munduan hizkuntza asko daude eta ohitura asko, baita gure artean ere. Sekuentzia honetan hizkuntzen eta ohituren inguruan arituko zarete.

Hizkuntzak eta ohiturak direla-eta eskolan edo zuen inguruan sortzen diren arazoak aztertu eta pertsona helduei elkarrizketak egingo dizkiezue. Ikusten dituzuen edo bizi dituzuen egoera arazotsu horiei buruz galdetu. Helburua da arazo horiek konpontzeko proposamenak egitea.

Beheko koadroan duzue sekuentzia honetan egingo duzuen. Hiruko taldeak egingo dituzue. Bildu zaitzete eta taula bete.

<b>Taldekideen izenak:</b>		
<b>ZER EGINGO DUGU?</b>	<b>ZERTARAKO?</b>	
Hizkuntzei eta ohiturei buruz ikertuko dugu		
Arazoak aztertzen ahaleginduko gara.		
Elkarrizketarako galderak prestatuko ditugu.		
Elkarrizketak grabatuko ditugu		
Taldean lan egingo dugu		

Gaztelania arloan, berriz, elkarrekin bizi izateko eta ondo konpontzeko arauak egingo dituzue. Bi gaiak elkarri lotuta daude, bai. Hori guztia horma-irudi digital

batean eta ikastetxeko blogean jarriko duzue ikusgai eta entzungai.



Ea zuen horma-irudiak euskaraz eta gaztelaniaz egingo duzuen lana modu polit eta erakargarrian erakusten duen!



# 1. jarduera. Gure hizkuntzak eta gure ohiturak. Zeintzuk? Nolakoak?

## 1.1 Gure hizkuntzak

Talde handian bildu eta saiatu honako galderak erantzuten:



(Irudia: *Cómo viven los niños en el mundo* liburutik hartuta)

- Badakizue zenbat hizkuntza desberdin dagoen munduan?
- Letra mota berdinak erabiltzen al dira hizkuntza guztientzat?
- Zein da guk idazterakoan erabiltzen dugun norabidea? Denek erabiltzen al dute norabide berbera?
- Inork ba al daki bere izena beste hizkuntza batean idazten?

Honako helbideetan klikatuz gero, zuen izenak beste hizkuntza batzuetan nola idazten diren ikusiko duzue:

<http://lexiquetos.ohui.net/nombres-chino/>

<http://lexiquetos.ohui.net/nombres-japones/>

<http://lexiquetos.ohui.net/nombres-arabe/>

Begira ezazue ingurura, telebista ikusten duzuenean edo gurasoekin erosketak egitera joaten zaretenean, zein dira beste hizkuntzetan agertzen diren hitzak? Zein dira hizkuntza horiek? Zenbat hizkuntza desberdin daude gure inguruan? Non hitz egiten dira ezagutzen ditugun hizkuntzak?

Hiruko taldeetan bildu eta saiatu galdera horiek erantzuten. Ezagutzen duzuen hizkuntza bakoitzari kolore bat eman eta lurraldea identifikatu.




Talde handian eta arbel digitalean erkatu zuen erantzunak eta azaldu hautaketan zergatia, hau da, zergatik eman

Zuen ikastaldeko hizkuntzak aztertuko dituzue. Lehendabizi, nor bere datuak jasoko ditu eta gero, ikasgelako kideen datuak bilduko dituzue.

**Zer hizkuntza erabiltzen duzu?**





- Zenbat? \_\_\_\_\_
- Zeintzuk? \_\_\_\_\_

 <b>Hizkuntzak</b>	Non erabiltzen dut?				Zer egiten dut?				Non ikasi dut?			
	etxean	eskolan	lagunekin	hitz egin	irakurri	musika entzun	telebista ikusi	jolastu	etxean	eskolan	bidaletan	lagunekin
Euskara												
Gaztelania												
Beste hizkuntza bat :												
.....												
.....												
.....												

Bakoitzak bere datuak jaso ondoren, talde handian arituko zarete eta ikaskide guztien datuak jasoko dituzue. Zuen taldean dagoen hizkuntza aniztasuna eta hizkuntzaren erabilera aztertuko dituzue.

Lana ondo antolatzeko, proiektatu beheko taula arbela digitalean. Zuetako batek zenbatuko ditu zuen erantzunak eta bertan jasoko ditu. Gero, bakoitzak bere orrian kopiauko ditu.

**Inkesta**

Gure ikasgelako hizkuntzak eta horien erabilera													
<b>Hizkuntzak</b> 	Non erabiltzen dute?			   Zer egiten dute?				Non ikasi dute?					
	etxean	eskolan	lagunekin	hitz egin	irakurri	musika entzun	telebista ikusi	jolastu	etxean	eskolan	bidaletan	lagunekin	
Euskara													
Gaztelania													
.....													
.....													
.....													

***Nahiz eta hizkuntza desberdinetan mintzatu, denok elkarrekin bizi behar dugu.***

**Zer adierazten dute datu horiek? Zer ondorioz heldu zarete?**

---



---



---

## 1.2 Nolakoak dira gure ohiturak?



Ye Hua-ren gelan ikasleek bere buruaren eta bere herrialdeko ohitura eta ezaugarri berezien azalpena egin dute.

Hona zer azaldu duten:

*Ye Hua naiz eta bederatzi urte ditut. Nire gurasoak eta ahizpa Txinan jaio ziren. Nire gurasoek denda batean egiten dute lan. Guk mandarinez hitz egiten dugu eta beste modu batean idazten dugu. Nire izenak **叶华** "polita" esan nahi du.*

*Otsailean Urte Berri Txinatarra ospatzen dugu bazkari eder batekin. Egun horretan umeoi gutun-azal gorri batean dirua oparitzen digute.*

*Inés naiz eta hamar urte ditut. Gurasoak Marokotik etorri ziren lanera, Sami, nire neba, eta ni han jaio ginen baina oportetan Marokora joaten gara. Nik arabieraz eta euskaraz hitz egiten dut. Hango lagunak letra desberdinak idazten dituzte. Nire izena honela idazten da: **انيس**.*

*Argazki bat ekarri dizuet eta bertan txanodun txilaba eta babutxak jantzita ditut, han janzten diren bezala. Egun batean izekok eskuetan irudi politak margotu zizkidan hennarekin.*

*Vasile naiz. Ama erizaina da. Iaz etorri ginen Bulgariatik hona eta letra berriak idazten eta irakurtzen hasi nintzen. Amamaren pastela, kozonak izenekoa, askotan gogoratzen dut.*

*Aste Santuan, arrautza egosiak margotzea gure ohitura da. Han Nikolas Deuna ospatzen da. Gauean umeek zapata garbi-garbiak ate ondoan uzten ditugu. Jaikitzen garenean, gozokiz beterik topatzen ditugu.*

Bilatu eta mapan adierazi ikasle horiek aipatu dituzten herrialdeak.



Irudiak eta testuak <http://sol.intervida.org>  
INTERVIDA F U N D A C I Ó N: [www.intervida.org](http://www.intervida.org)

Orain, lau taldeak egingo dituzue eta zuek ere Vassilik, Inesek eta He-Yua-ek egin duten bezala, zeuen buruaren aurkezpena egingo duzue eta gure



herrialdeko ohituraren bat edo etxean edo familian duzuen ohitura bereziren bat azalduko duzue ikaskideen aurrean. Egingo duzuen azalpenak denbora gehiago iraungo du baina: minutu bat! Denbora neurtu eta azalpena denbora horretara egokitu!

Irudiaren jatorria: CNICE

Ezer kontatzen hasi baino lehen, zeri buruz hitz egingo duzuen jakiteko eta ideiak ez errepikatzeko gidoi bat idaztea komeni zaizue.

Aurkezpenean saiatu argi ahoskatzen!

Talde txikia osatzen duzuenon artean erabakiko duzue zein den azalpenik interesgarriena, desberdina edo berezia izan delako, talde handian kontatzeko.

## 2. jarduera. Nola konpondu elkarrekin?

Ikusi duzueenez, denok, neskak izan, mutilak izan, hemen jaioak, kanpoan jaioak.... desberdinak gara. Hizkuntza desberdinak izan ditzakegu eta ohitura desberdinak. Eta elkarrekin bizi garenez, elkarrekin bizitzen ikasi behar dugu. Horren inguruan gogoeta egiten lagunduko dizue beheko olerkiak.

Irakurri aurretik, erreparatu formari. Zein liburutatik atera da? Nola du izena? Zeri buruz arituko ote da?

Orain zuetako batek ozenki irakurriko du eta berak irakurri ahala zuek azpimarratu olerki honek dituen hitzik esanguratsuenak edo politenak. Gero, talde handian hitz egingo duzue olerkiaren esanahiaz.

*Ez dio axola neska ala mutila zaren, beltza ala zuria zaren,  
nire hizkuntza ondo ulertzen duzun eta nik zurea.*

*Ez dio axola nondik zatozen, edo non jaioa zaren.*

*Ez dio axola zure gurasoak lehendik hemen bizi izan ziren.*

*Ez dio axola guk biok sinesmen ezberdinak ditugun.*

*Hortik ez dio ezerk axola.*

*Ez baititugu ezberdintasunak diskriminazio  
bilakaraziko.*

*Ezberdintasunak aberasgarri zaizkigulako.*

*Gure patua elkarrekin bizitzea delako.*

*Eta elkar ulertuko dugu.*

*Ekarri bosteko hori.*

*Elkar ulertuko dugu.*



Esteve Alcolea  
GURE ESKUBIDEAK

Hiruko taldeak egingo dituzue eta olerkian aztertu duzuen abiapuntu moduan hartuko duzue... Pentsatu honako honetaz: batzuetan, egoera desatseginak edo arazotsuak gertatzen dira inguruan, patioan, ikasgelan, eskolako jantokian, kalean... hizkuntzen inguruan edo ohituren inguruan. Zer-nolako arazoak edo egoera desatseginak ikusten dituzue? Zein dira egoera arazotsu horiek? Non gertatzen dira? Noiz? Noren artean? Nola sentitzen zarete egoera horietan?...



Idatzi beheko koadroan ezagutzen dituzuen edo bizi izan dituzuen egoera arazotsuak edo desatseginak hizkuntza edo ohiturak direla-eta...

Gaztelania ere gai honen inguruan ari zarete eta elkarrekin ondo konpontzeko arauak eta prestatzen ari zarete. Bertan egin duzuen gogoeta baliagarria izan daiteke atal honetarako. Gogoratu bertan esan duzuen edo irakurri duzuen eta hizkuntza eta ohiturekin elkartu.

**Honelako egoera arazotsuak ikusten edo ezagutzen ditugu:**



***Hobe desberdinak izan eta elkarrekin bizitzen ikasi.***

### 3. jarduera. Badakigu zer egin arazo horiek konpontzeko! Pertsona helduekin hitz egingo dugu!

Inguruan dituzuen pertsona helduek, batzuetan, ez diote zuek ikusten duzuenari erreparatzen. Edo beharbada bai, ikusten dituzte horrelako egoerak eta zuei bururatzen ez zaizkizuen konponbideak proposatu ahal dituzte. Beraz, zergatik ez diezue galdetzen eta gai arazotsu horien inguruko elkarrizketa egiten?

**Arazoek konponbidea izan dezakete.**

Elkarrizketan sekuentzia honetan jorratu ditugun gaiei buruz eta gaztelania arloan bururatu zaizkizuen elkarbizitarako arau horiei buruz galdetu ahal diezue. Euren iritzia jakingo duzue eta, agian, konponbide egokiak proposatuko dizkizute.

Hiruko taldeak egingo dituzue. Baina hasteko, ez legoke gaizki jakitea elkarrizketa batean zer den inoiz egin behar ez duzuen. Ikus jarraian datorren bideoa eta hausnarketa egin

(jatorria: Maite Goñik egindako webquesta: 'Solasean')

[http://www.youtube.com/watch?v=HElgh\\_gHtL0](http://www.youtube.com/watch?v=HElgh_gHtL0)



Zer egin behar da elkarrizketa batean? Zer ez da egin behar? Talde handian bildu eta markatu hurrengo orrialdeko hodeian elkarrizketan kontuan hartu behar dituzuen ezaugarriak:



Ozenegi hitz egin.

Aurrez prestatutako esaldi batzuk erabili (atrebentzia ez bada...  
; galdera txarra da, baina...)

Zakar erantzun.

Gaiari buruzko informazioa erabili galderak prestatzeko.

Elkarrizketatuari buruzko datu batzuk aldeztatik jakin.

Ahalegindu solaskidea gustura egon dadin.

Baxuegi hitz egin.

Azkarregi hitz egin.

Solaskideari ez inposatu inoiz zure asmo, uste edo iritzirik.



Mantsoegi hitz egin.

Arretaz entzun solaskideak dioena.

Elkarrizketatuari hitza kendu.

Gogoratu! Hautatu dituzuen ezaugarri horiek oso kontuan hartu behar dituzue elkarrizketan zehar.

Elkarrizketa prestatzen hasi aurretik, Jakintza ikastolako ikasleek egindako elkarrizketa bi ikusiko dituzue. Aukeratu bat edo biak eta erreparatu ezaugarriei.

<p><a href="http://www.vimeo.com/25155590">http://www.vimeo.com/25155590</a></p> 	<p><a href="http://video.google.com/videoplay?docid=-4461931680623533929&amp;hl=eu#">http://video.google.com/videoplay?docid=-4461931680623533929&amp;hl=eu#</a></p>  <p>Andoni Agirregomezkortarekin elkarrizketa</p>
<p>Elkarrizketa gehiago (<a href="http://www.euskaljakintza.com/gure-txokoa/elkarrizketa-guztiak/">http://www.euskaljakintza.com/gure-txokoa/elkarrizketa-guztiak/</a>)</p>	

Konturatu zarete nolako sarrera eta amaiera egin duten? Arretaz entzun duzue zer esan duten horietako atal bakoitzean? Zuen elkarrizketan modu bertsuan jarduteko eredu onak dira...

Ikusi eta entzun dituzuen elkarrizketetan hauxe da elkarrizketaren egitura nagusia:

<p><b>EGITURA</b></p>	<p><b>1. Sarrera</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Hasierako agurra</b> (aurkezpena: nortzuk zareten, zein den elkarrizketaren helburua, nor elkarrizketatuko duzuen esan)</li> </ul>
	<p><b>2. Galdera-erantzun sorta</b></p>
	<p><b>3. Amaiera:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Bukaerako agurra</b></li> <li>• <b>Elkarrizketatuak eta elkarrizketatzaileak eskerrak eman</b></li> </ul>

Zuen txanda da orain. Elkarrizketa on batek prestaketa behar du, nola ez! Zuen elkarrizketa prestatzeko urrats hauek hartu kontuan:

<b>GURE ELKARRIZKETAREN PLANIFIKAZIOA</b>	
<b>GAIA</b> zein den erabaki	
<b>ZER JAKIN</b> nahi den erabaki.	
Gero <b>NORI</b> egingo diogun elkarrizketa erabaki	
Aukeratutako <b>pertsonari buruzko informazioa</b> bildu:	
Elkarrizketatuak argi jakin behar ditu elkarrizketaren helburuak, asmoak eta egitekoak.	
<b>GALDERAK</b> prestatu	
Ahal bada, beti ere erantzun zabala eskatzen duten galderak egin, saihestu bai/ez baino beste aukerarik ematen ez dutenak.	

#### 4. jarduera. Galderak ondo idazten eta egiten ikasiko dugu

Galderak prestatzeko orduan tentu handiz ibili behar duzue. Hasteko, ongi pentsatu zer den jakin nahi duzuen. Elkarriketatzailerik onak gairi buruzko ezagutzak dituenak da, dagoeneko zuek gaia apur bat ezagutzen duzue; beraz, arrakasta ia ziurtatuta duzue.



Atal honetan hizkuntza landuko duzue eta galderen formari

erreparatuko diozue. Irakurri arretaz honako ohar hau:

##### ADI !!!

Euskaraz, **ZER, ZEIN** eta **ZENBAT** galdetzaileekin **mugagabea** erabiltzen da: Adib. : “Zein **bideo** ekarri duzu ?”, “Zenbat **haur** ikusi duzu ?”, “Zer **hondakin** mota da?”

Gainera, ohiko akatsa da “-a” itsatsia duten hitzak mugagabean gaizki deklinatzea eta ondorioz “-a” hori kentzea. Kontuz, beraz, !

Adib. :\*“Zenbat anai zarete?” Okerra’ “Zenbat anaia zarete?” Zuzena  
(bukaerako -a hitzarena baita, ezin zaio kendu!)

Banaka, aztertu beheko galderak. Asmatutako batzuk jarri ditugu eredu moduan. Zeintzuk daude ondo eta zeintzuk gaizki? Biribildu ondo ala txarto dagoen eta txarto badago, zuzendu.

- ✓ Zein gelan zaude? Ondo / Txarto
- ✓ Zenbat jolasak dituzu? Ondo/ Txarto
- ✓ Zein tokian utzi dituzu liburuak? Ondo/ Txarto
- ✓ Zuen etxean zein hizkuntza erabiltzen da?  
Ondo/ Txarto
- ✓ Zenbat ikasleek hitz egiten dute ingelesez ikastetxe honetan? Ondo/  
Txarto



Galdera horiek, baina, itxiak edo erdi-itxiak izan dira, erantzun labur-laburra eskatzen dute. Hartara, elkarrizketatuak ez du aukerarik zabal hitz egiteko. Galdera irekiak planteatzeko hona eredu batzuk:

- ✓ Zer uste duzu .....(zertaz)?
- ✓ Zure ustez, zer egin ahal da .....(zer) konpontzeko?
- ✓ Zer egiten duzu.....(noiz)?

Elkarrizketarako galderak egiteko galdetu hizkuntzei buruz, elkarrizketatuak dituen ohiturei buruz, eta ea egoera arazotsurik ezagutzen duen, ea konponbiderik bururatzen zaion. Horretaz gain, gaztelania arloan proposatuko dituzuen araei buruz ere galdetu ahal diozue bere iritzia jakiteko.

Orain, galderak idatzi.

Idatzi eta gero beheko kontrol zerrendan dituzuen irizpideak kontuan hartu eta taldean berrikusi.

**GURE GALDERAK**

1. \_\_\_\_\_

2. \_\_\_\_\_

3. \_\_\_\_\_

4. \_\_\_\_\_

5. \_\_\_\_\_

6. \_\_\_\_\_


7. \_\_\_\_\_

8. \_\_\_\_\_

9. \_\_\_\_\_

10. \_\_\_\_\_

.





<b>GALDERAK BERRIKUSTEKO TXANTILOIA</b>	<b><i>Bai ala ez?</i></b>
Galdera nahiko daude.	
Galderak mota desberdinekoak dira.	
Galderek elkarrizketatuaren datu pertsonalei buruz galdetzen dute.	
Bai ala ez erantzuna eskatzen dutenak baino ez dira.	
Galdera irekiak dira, aukera ematen dute luze-zabal erantzuteko..	
Galderak erraz ulertzen dira.	
Sekuentzia honetan landu ditugun gaiei buruz galdetzen dute.	
Gaztelania arloan proposatu ditugun elkarrekin bizitzeko araei buruz ere galdetzen dute.	
Galderak ondo eginak daude. Mugagabea ondo erabilia dago.	
<b>IRADOKIZUNAK:</b>	

## 5. Jarduera. Elkarrizketa grabatzen

Galderak prestatuta dituzuela, elkarrizketaren zirriborroa idatziko duzue. Horretarako, berreskuratu 3. jarduerako eskema. Gogoratu atal guztiak: sarrera, galde-sortak eta amaiera .

Sarrerarako hasierako agur hitzak gogoratu (bideoetan ere ikusi dituzuenak, imitatu, beldurrik gabe, gero naturaltasun handiagoz aterako zaizkizue).

Heldu da elkarrizketa egiteko unea. Grabazioa egiteko eskuko telefono bat erabili ahal duzue, edo bestela, mp3 grabagailua. Kontuan hartu honako



urratsak:

1. **Erabili aurrez idatzitako gidoia.**
2. Elkarrizketa egiten hasi aurretik **elkarrizketatuari elkarrizketa grabagailuz (edo bideoz) jasotzeko baimena eskatu.**
3. Elkarrizketan zehar **zaindu adostu dituzuen ezaugarriak.**
4. **Taldekideen artean banatu galderak. Txandak errespetatu.**
5. **Grabazioa egin ondoren,** ebalua ezazue egindako lana, hurrengo batean zer hobetu behar duzuen jakiteko

Beheko ebaluazio-orria erabil dezakezue taldean egindakoa balioesteko:

<b>Ebaluazio-orria</b>	<b>Bai? Ez?</b>
Egin diozue hasierako agurra elkarrizketatuari?	
Elkarrizketaren hasieran helburua markatu duzue?	
Mantso eta argi ahoskatu dituzue galderak, irakurri gabe?	
Txandaka aritu zarete galderak egiten?	
Elkarrizketaren amaieran agurra egin duzue?	

## 6. jarduera. Horma-irudi digitala sortzen

Egin dituzuen elkarrizketak eta inkesta alde batetik eta gaztelania arloan proposatu dituzuen elkarbizitzarako arauak bestetik elkartu egingo dituzue horma-irudi digital batean eta Eskolako edo gelako blogean jarriko dituzue ikusgai.



<http://marijeuraga.glogster.com/glogster-zertarako-3013/>

Kartel-digitalak (Glog-ak) egiteko interneten dagoen aplikazioaren erabilera ikasiko duzue lehenbizi. Glogster aplikazioak irudiak eta testuak ez ezik, bideoak eta audioak ere txertatzeko aukera ematen du. (Aplikazioa ikusteko egin klik [HEMEN](#))

Glogster nola erabiltzen den ikasteko tutoriala duzue jarraian. Talde handian landu ondoren, beronen erabileran trebatu zaitezke (Glogsterra ikasteko tutoriala:

<http://munduki21.glogster.com/tutoriala/>)

Elkarrizketa grabatu duzuen taldekideok bildu eta glogsterra egingo duzue. Ea zer moduz ateratzen zaizuen!

Zaindu elementuen arteko **koherentzia**, hau da, lotura, gauza bakoitza non jartzen duzuen. Antolaketak garrantzi handia dauka.







Bukatzen duzuenean, taldeen artean trukatu kartelak eta, jarraian ematen zaizkizuen irizpideen arabera, egin elkarri hobetzeko proposamenak.




<b>Kartel digitalen azterketa</b>	BAI/EZ	IRADOKIZUNAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Horma-irudian azaltzen diren elementuak, testuak eta irudiak, ondo al datoz elkarrekin? Gaiari lotuta daude?</li> <li>✓ Bi hizkuntzetan egindako ekoizpenak bildu dituzue?</li> <li>✓ Kartelean azaltzen diren elementuen kokapena egokia al da? Zergatik? Zer egingo zenukete kokapena hobetzeko?</li> <li>✓ Kartelean azaltzen diren irudi eta testu kantitatea egokia al da? Zergatik? Zer egingo zenukete hobetzeko?</li> </ul>		

Bukatutakoan, bistaratu kartelak arbel digitalean eta talde handian partekatu zuen balorazioak.

**7. Egindakoa ebaluatzen. Zer egiten ikasi dut?**

<p>Hizkuntzen et ohituren inguruan hausnartu dut.</p>	
<p>Hizkuntzen eta ohituren inguruan sortzen diren arazoei konponbidea bilatzen ahalegindu naiz.</p>	
<p>Elkarrizketak egiten ikasi dut.</p>	
<p>Taldean lan egiten ikasi dut.</p>	
	<p>Nola egin duzu lan?</p>
	<p>Zure gustukoa izan da sekuentzia hau?</p>







RESOLVIENDO CONFLICTOS  
*NORMAS DE CONVIVENCIA*  
Proyecto integrado

Secuencia didáctica para el área de Lengua Castellana y  
Literatur. 4º Educación Primaria

## ESQUEMA DE TRABAJO DE LAS DOS SECUENCIAS DIDÁCTICAS DEL PROYECTO INTEGRADO

**Áreas implicadas:** Euskera y Literatura , Lengua Castellana y Literatura, Conocimiento del Medio

**Tema:** Contra la discriminación

**Nivel:** 4º de E. Primaria

**Nº de sesiones:** 8 sesiones en cada área

### Contextualización de la propuesta:

En la sociedad actual la globalización, el tránsito de personas y la diversidad (social, cultural, racial...) es una constante. Las actitudes ante lo diverso, lo diferente a veces están cargadas de prejuicios que es necesario erradicar para entender la diversidad como una riqueza y para aceptar el principio de que todas las personas son iguales y deben gozar de los mismos derechos y oportunidades.

En este proyecto integrado se proponen dos secuencias didácticas para colaborar en el desarrollo de la competencia social y ciudadana: *Konponbide bila gabiltza* y *Normas de convivencia*. Este proyecto integrado podría trabajarse en torno al 18 de Diciembre, día internacional de las migraciones. En él, los alumnos deberán elaborar una normativa para solucionar los conflictos que surgen en su ámbito más cercano y reflexionarán, a través de entrevistas, sobre las lenguas y las costumbres de su entorno. Las producciones finales (entrevistas y decálogos) se publicarán en un mural digital.

### **Normas de convivencia. Competencias básicas trabajadas:**

- ✓ **Comunicación lingüística:** todas las actividades.
- ✓ **Aprender a aprender:** 4, 7, 8.
- ✓ **Tratamiento de la información y competencia digital:** 1 y 7
- ✓ **Competencia social y ciudadana:** 0, 1, 2, 3, 4, 6,

### ***Konponbide bila gabiltza* sekuentzian landuko diren oinarritzko gaitasunak:**

- ✓ **Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna** (jarduera guztietan)
- ✓ **Ikasten ikasteko gaitasuna:** 1., 3., 4., 7. jardueretan
- ✓ **Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna:** 3. eta 6. jardueretan.
- ✓ **Gizarterako eta Herritartasunerako gaitasuna:** 0 jardueran, 1., 2. eta 3. eta 6. jardueretan..

### **Objetivos didácticos:**

- ✓ Comprender e interpretar textos argumentativos (conversaciones, decálogos) orales y

escritos.

- ✓ Participar en conversaciones pautadas de manera adecuada, adoptando una actitud respetuosa y de cooperación para lograr una comunicación interpersonal eficaz.
- ✓ Reflexionar sobre algunas características básicas de los textos argumentativos para favorecer el uso adecuado, coherente y correcto de los mismos.
- ✓ Utilizar las Tic de forma eficaz en la búsqueda de información y en la producción y revisión de los textos.
- ✓ Planificar un texto de acuerdo a la situación de comunicación dada.
- ✓ Redactar, revisar y corregir el texto de acuerdo a los criterios establecidos.
- ✓ Utilizar lo aprendido en otras lenguas sobre este tipo de textos.
- ✓ Conocer y valorar los rasgos culturales propios y las diferencias con otros grupos, manteniendo actitudes de respeto hacia las demás identidades, culturas y pueblos.
- ✓ Reconocer la existencia del conflicto utilizándolo como un mecanismo de superación de diferencias.

### Contenidos:

- ✓ Análisis y reflexión sobre la diversidad cultural en el entorno más cercano al aula.
- ✓ Desarrollo de una actitud crítica ante la discriminación entre iguales.
- ✓ Análisis de Entrevistas y Normativas.
- ✓ Producción, previa planificación, de Entrevistas Orales y Normativas.
- ✓ Revisión de las producciones propias y de los compañeros.
- ✓ Utilización de herramientas digitales en la producción de textos orales y escritos.
- ✓ Interés por la coherencia, corrección y adecuación de los textos propios.
- ✓ Interés y respeto en las actividades que exigen colaboración

### *Konponbide bila gabiltza. Jardueren segida:*

#### Planifikazioa

1. **Motibazioa. Berdinak ala desberdinak gara? Zer dugu berdin? Zer desberdin?**

#### Gauzatzea

2. **Gure hizkuntzak eta gure ohiturak. Zeintzuk? Nolakoak?**
3. **Nola konpondu elkarrekin?**
4. **Badakigu zer egin arazoak konpontzeko. Pertsona helduekin hitz egingo dugu!**
5. **Nolako galderak? Galderak egiten ikasiko dugu.**
6. **Elkarrizketak grabatu eta egindakoa ebaluatzen.**

#### Erabiltzea

7. **Horma-irudi digitala sortzen.**
8. **Zer ikasi dut?**

**Normas de convivencia . Secuencia de Actividades:****Planificación**

Motivación

**Realización**

8. ¿Podemos convivir las personas diferentes?
9. Analizando decálogos
10. ¿Qué tenemos que hacer para respetarnos?
11. Seleccionamos nuestras normas de convivencia
12. Escribimos las normas de convivencia

**Aplicación**

13. Corregimos nuestras normas
14. Nos comprometemos a respetar


**Evaluación. Indicadores:**

- ✓ Participa en las actividades de reflexión sobre la diversidad cultural en su entorno cercano.
- ✓ Reconoce las características de la Entrevista y las Normativas.
- ✓ Selecciona la información adecuada para incluir en sus producciones finales.
- ✓ Colabora con el grupo de compañeros compañeras en las actividades del aula.
- ✓ Elabora las producciones orales y escritas correspondientes a cada unidad.
- ✓ Revisa y mejora las propias producciones.
- ✓ Colabora en la revisión de las producciones de los compañeros.
- ✓ Utiliza las herramientas TIC con espíritu crítico y eficacia en la producción de sus textos orales y escritos.
- ✓ Valora y reconoce las características culturales propias y también las de otras razas, grupos y culturas.

**Instrumentos**

- ✓ Plantilla de recogida de datos sobre el género trabajado en la actividad 2 (es) 1(eus)
- ✓ Plantillas de evaluación del proceso, del borrador y del producto final: actividades 4, 7, 8, (es) 4, 5, 6, 7 (eu)
- ✓ Cualquier otro que determine el profesorado:

## NORMAS DE CONVIVENCIA

Secuencias	Actividades
	<h3>Motivación</h3>
<p>¿Como nos entendemos entre las personas?</p>	<p><b>8.</b> ¿Podemos convivir las personas diferentes?</p> <p><b>9.</b> Analizando decálogos</p>
<p>Normas de convivencia</p>	<p><b>10.</b> ¿Qué tenemos que hacer para respetarnos?</p> <p><b>11.</b> Seleccionamos nuestras normas de convivencia</p> <p><b>12.</b> Escribimos las normas de convivencia</p>
<p>Respeto, respeto, respeto</p>	<p><b>13.</b> Corregimos nuestras normas</p> <p><b>14.</b> Nos comprometemos a respetar</p>





## Todos somos diferentes, todos somos iguales.

En esta clase os habéis juntado niños y niñas de la misma edad, que compartís muchas cosas; pero cada uno de vosotros es diferente a los demás. ¿O no? Vamos a ver en qué os parecéis y en qué os diferenciáis. Para ello, vais a rellenar la siguiente encuesta sobre vuestros gustos y aficiones.



	Sí	No
1. Practico deporte en mi tiempo libre		
2. En vacaciones, me gusta viajar con mi familia		
3. En vacaciones, me gusta ir a campamentos		
4. Me gusta ver películas		
5. Tengo muchas amigas		
6. Tengo muchos amigos		
7. Me gusta leer libros		
8. Me gusta ir al campo y al monte		
9. Me gusta nadar en la piscina		
10. Me gusta ir a la playa		
11. Estoy muy a gusto en clase		
12. He crecido mucho para mi edad		
13. Aprendí a hablar muy pronto		
14. Canto bien		
15. En el recreo, me gusta hablar con los demás		
16. En el recreo, me gusta jugar a cosas diferentes		



Mi comida favorita es:

Mi asignatura favorita es:

Mi serie de televisión favorita es:

Mi cantante favorito es:

Mi deporte favorito es:

Mi libro favorito es:

Me película favorita es:

Vamos a analizar los resultados de toda la clase. Para ello, sólo tenemos que “vaciar” cada una de vuestras respuestas en las siguientes tablas:

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16
Sí																
No																

Comida	Asignatura	Serie	Cantante	Deporte	Libro	Película

Probablemente, hayan surgido respuestas diferentes, es decir, vosotros no sois iguales en todo, en gustos y aficiones, pero ¿quiere eso decir que unos son mejores que otros, o solamente que sois diferentes?

En esta actividad, vamos a hablar de las diferencias entre las personas. En euskera vais a opinar sobre diferencias culturales (idioma, costumbres...) para

detectar los problemas de convivencia que surgen de la diversidad y tratar de buscar soluciones; posteriormente, escribiréis una carta a la directora de la escuela explicando qué se puede hacer para convivir mejor.

En castellano, vamos a profundizar en las diferencias individuales; a partir de ellas, y teniendo en cuenta lo que hayáis aprendido en euskera, al final de la unidad, vais a ser capaces de escribir unas normas de convivencia que garanticen que vamos a respetar las diferencias entre nosotros.

Al finalizar el proyecto, podéis crear un póster digital en el que se recojan todos vuestros trabajos para que los puedan conocer vuestros compañeros, amigos y familias. ¿Estáis de acuerdo?

En esta tabla, hemos recogido lo que haremos a lo largo del proyecto. Intentad completarla.

### **¿Qué haremos?**

Vamos a ver cómo somos, nuestros gustos y aficiones

Conoceremos diferentes normativas

Escribiremos unas normas de convivencia

Trabajaremos en grupos

### **¿Para qué?**



## Actividad 1. ¿Podemos convivir los niños y niñas diferentes?

¿Sabéis que todos los niños y niñas del mundo tenéis unos derechos por el sólo hecho de ser niños? Los podéis leer en esta dirección <http://www.pekegifs.com/derechos.htm> ilustrados con imágenes de una niña universal, Mafalda.

Vais a leerlos detenidamente, en grupos pequeños, para:

- resumir en pocas palabras cada derecho
- decir si creéis que ese derecho se cumple.

Os ponemos un ejemplo.

Todos los niños y niñas tenemos derecho a...	¿sí/no?
1.	
2.	
3. Tener nombre y nacionalidad	Sí
4.	
5.	
6.	
7.	
8.	
9.	
10.	
	

Vamos a leer detenidamente el último derecho:

El niño debe ser protegido contra las prácticas que puedan fomentar la discriminación racial, religiosa o de cualquiera otra índole. Debe ser educado en un espíritu de comprensión, tolerancia, amistad entre los pueblos, paz y fraternidad universal, y con plena conciencia de que debe consagrar sus energías y aptitudes al servicio de sus semejantes.



Las personas diferentes no sólo podemos vivir juntas, ¡tenemos el derecho de ser respetados y la obligación de respetar a los demás! Para que no surjan conflictos, es conveniente tener unas normas de convivencia. ¿Os atrevéis a redactarlas?

## Actividad 2. Las normas de convivencia

¿Habéis estado alguna vez en unas piscinas municipales? ¿Para qué hay socorristas y vigilantes en ellas? ¿Hay algo que no hayáis podido hacer? Para que las piscinas se puedan utilizar por un gran número de personas sin que surjan conflictos, hay una serie de normas que tienen que cumplirse a rajatabla. Vamos a analizar el lenguaje de las normas de uso de una piscina



1. Es **obligatoria** la ducha de todo el cuerpo antes y después de la inmersión en la piscina. **X**
2. Es obligatorio el uso de bañador y gorro de baño en todo el recinto de piscinas.
3. Está prohibido el acceso a la piscina vestido de calle o calzado salvo personal autorizado por el Patronato.
4. El servicio da derecho a uso de vestuarios y duchas máximo 15 minutos antes y 15 después del baño.
5. Está prohibida la entrada al recinto de bolsas de deporte ni material ajeno al baño.
6. Está prohibido el acceso de animales a las instalaciones.
  
15. Se recomienda la utilización de los aseos antes de acceder al recinto, especialmente los niños.
16. Queda prohibida la entrada a menores de 8 años, excepto que les acompañe un adulto de manera efectiva (vigilando y controlando de cerca sus movimientos) durante el transcurso de todo el tiempo que el menor se encuentre en las instalaciones.
17. No está permitido ensuciar el agua de la piscina, usar jabón, orinar, etc.
18. **No** están permitidos los saltos, empujones y juegos que puedan molestar o producir riesgo de accidentes.

<http://www.irun.org/Enlaces/00006641.pdf>



En grupos de tres o cuatro personas, analizad el texto anterior. Para ello, tenéis que:

- Leer el texto detenidamente. Si hay alguna palabra que no entendáis, preguntadla en alto para poder responderla entre todos.
- Resaltar en verde todas las palabras que indiquen obligatoriedad, prohibición y recomendaciones.
- Subrayar todas las palabras que indiquen opiniones.
- Poner una **X** junto a las normas que sean claras, que no puedan interpretarse de manera diferente por distintos alumnos.
- Resaltar en rojo las negaciones.
- Contestar a estas preguntas:
  - ¿Cada norma es corta y clara?
  - ¿Las normas están numeradas?
  - ¿El lenguaje es fácil de entender?

¿Podrías enumerar las características de una normativa? Vamos a escribirlas entre todos en la pizarra digital; de ahí saldrá la hoja de control que tendréis que utilizar al corregir vuestros textos.

## Actividad 2. Analizando decálogos

A menudo os encontraréis “decálogos”, que son textos en los que se proponen diez normas o reglas para hacer algo. Las normativas y los decálogos son muy parecidos, la mayor diferencia es que en los decálogos siempre aparecen diez normas o consejos, y en las normativas puede aparecer más o menos.

En la siguiente actividad, vais a analizar el lenguaje de un “decálogo medioambiental” elaborado por alumnos y alumnas de Instituto. Tenéis que corregirlo para practicar con el lenguaje de las normativas. Hacedlo en pequeños grupo, y aplicad la hoja de control que habéis redactado entre todos.

[http://www.iesleonardo.info/wiki/index.php/Dec%C3%A1logos\\_medioambiental\\_es\\_elaborados\\_en\\_el\\_IES\\_Leonardo\\_da\\_Vinci](http://www.iesleonardo.info/wiki/index.php/Dec%C3%A1logos_medioambiental_es_elaborados_en_el_IES_Leonardo_da_Vinci)

## DECÁLOGO MEDIOAMBIENTAL del I.E.S LEONARDO DA VINCI

Nuestro compromiso siempre se fundamentará en el cumplimiento inspirado en: **REDUCIR, REUTILIZAR Y RECICLAR**. Entendiendo que éste debe ser el inicio del comportamiento Medioambiental

1. Sensibilizar y formar a toda la comunidad educativa sobre el cuidado del medio ambiente, con una actuación activa y responsable.
2. Impulsemos medidas de protección ambiental en nuestro entorno próximo: casa, instituto, barrio, etc.
3. Apliquemos procedimientos que reduzcan todos los tipos de contaminación: acústica, atmosférica, etc.
4. Cuidemos el orden y la limpieza de todas las instalaciones del I.E.S.
5. Controlemos el consumo y buen uso de Recursos Naturales como el agua, ya que se trata de un bien escaso, ¡los efectos de la sequía no desaparecen!.
6. No utilicemos los inodoros como cubos de basura, con ello se facilitará la depuración de las aguas.
7. No malgastemos el papel, reduzcamos su consumo (doble cara de los folios) y colaboremos en su recogida, así contribuiremos a reducir la tala de árboles.
8. Reduzcamos el consumo de energía (luces, equipos informáticos y electrónicos, calefacción, ventanas abiertas, etc.).
9. Minimizar la producción de Residuos es cosa de todos.
10. Realizar una Recogida Selectiva de Residuos utilizando adecuadamente los contenedores situados en aulas, pasillos, talleres y laboratorios, facilitará su reciclado.





### Actividad 3. Seleccionamos nuestras normas de convivencia

En clase de euskera habéis reflexionado sobre las costumbres diferentes y los usos de diferentes lenguas que, a veces, provocan situaciones no deseadas dentro del aula. Pero hay otros conflictos provocados por las diferencias de carácter o por otras razones que crean mal ambiente en el grupo.

Vais a reuniros en grupos pequeños (tres o cuatro personas) para seleccionar aquellas situaciones del aula que, en vuestra opinión, generan mal ambiente. Luego, entre todos, vais a confeccionar un listado de aquello que os gustaría mejorar en vuestras relaciones en general y en el funcionamiento del aula en particular, para preguntar a los adultos que vais a entrevistar en euskera, qué podrías hacer para evitarlo. De las respuestas de los adultos y de vuestros debates, sacaremos las normas de convivencia.



#### A nosotros nos molesta:

- Que unos niños se rían de otros.
- Que haya peleas en clase.
- ...
- ...
- ...
- ...
- ...
- ...
- ...
- ...

Ahora que habéis hecho el listado de problemas, ya podemos buscar soluciones. Para ello, tenemos dos opciones:

Opción A	Opción B
<p>1. Debatid en el grupo pequeño una norma que sirva para evitar cada conflicto. Por ejemplo:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Nadie puede reírse de los demás. Si alguien se ríe involuntariamente, tiene que pedir perdón.</li> <li>▪ Hay que evitar las peleas en clase. Si dos o más niños empiezan a discutir, el delegado tiene que parar la discusión.</li> </ul> <p>2. Proponed en el grupo grande las normas de cada grupo pequeño y elegid la más apropiada</p>	<p>1. incluid en la entrevista que vais a hacer en euskera preguntas relacionadas con los conflictos seleccionados. Por ejemplo:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ ¿Cómo evitaríais que unos niños se rían de otros?</li> <li>▪ ¿Qué podemos hacer para que no haya peleas en clase?</li> </ul> <p>2. Poned en común las respuestas de los adultos y seleccionad entre todas las más adecuadas</p>



#### Actividad 4. Escribimos las normas de convivencia

¡Ya sabemos qué hacer para evitar conflictos en el aula! Vamos a ponerlo por escrito. Repasad vuestra hoja de control (actividad 1) para escribir correctamente las normas de convivencia. También podéis usar esta “chuleta” que recoge las características fundamentales de vuestro texto.

**Para escribir unas normas o un decálogo:**

- Escribid cada norma en un párrafo bien diferenciado.
- Utilizad oraciones sencillas, cortas y claras.
- Usad un tono afirmativo.
- Diferenciad claramente:
  - qué está prohibido.
  - qué es obligatorio.
  - qué es recomendable.
- Evitad palabras con doble sentido o con un significado dudoso.
- Ordenad las normas según su tema y según su importancia.
- Utilizad dibujos explicativos, si lo consideráis importante

**Además:**

- Repasad la corrección de vuestras normas.
- Repasad la ortografía.
- Reescribid el borrador hasta que lo consideréis adecuado.



## Actividad 5. Corregimos nuestras normas

Ha llegado el momento de que cada grupo valore el trabajo de los demás y haga propuestas de mejora. Para ello:

- Intercambiad los borradores de vuestro decálogo o de vuestra normativa con otro grupo.
- Retomad la tabla de control de la actividad 2 y completadla con las propuestas de la actividad 4.
- Corregid detenidamente cada norma y anotad todo lo que, en vuestra opinión, puede mejorar su redacción.
- Devolved al grupo el borrador con las propuestas de mejora y explicad por qué las habéis introducido.



Hecha la revisión del grupo, sólo queda mejorar vuestra normativa y presentarla a la clase. Hasta ahora habéis trabajado en grupos pequeños, pero ahora tenéis que unirlos en un grupo grande y hacer una normativa común para toda la clase. Para ello, volvemos a tener dos opciones:

1. Elegimos el trabajo de un grupo. Votamos entre todos qué normativa nos parece mejor.
2. Proyectamos en la pizarra digital las normativas de todos los grupos y vamos seleccionando una a una las normas que nos parecen buenas a la mayoría de la clase. ¡Cuidado! ¡No tenemos que repetirlas!

En cualquier caso, haremos una lectura final entre todos para garantizar que el texto final responde a nuestro trabajo.

## Actividad 6. Nos comprometemos a respetar nuestras propias normas.

Las normas sólo son efectivas cuando las personas se comprometen a cumplirlas. ¿Estáis dispuestos a que vuestras aulas sean un espacio de trabajo y estudio agradable? Pues vais a ponerlo por escrito.


Yo,.....estudiante de.....  
Educación Primaria en el centro....., me comprometo a respetar todas las normas recogidas en la normativa que hemos redactado entre los alumnos y alumnas de mi clase..

En....., a (día) de (mes) de (año)

Fdo. (Nombre y dos apellidos)

## Actividad 7. Incluimos en el cartel digital los trabajos de castellano y euskera.

En esta actividad vais a incluir en un cartel digital los diálogos y la encuesta hechos en euskera y las normas de convivencia propuestas en castellano, para luego hacerlo visible en el blog del aula.



Pero antes aprenderéis a utilizar una aplicación que hay en internet para hacer el cartel digital (Para ver la aplicación, clicar [AQUÍ](#)).

Os presentamos también un tutorial para aprender a utilizar esta aplicación; lo vamos a descubrir entre todos para que, luego, cada uno se ejercite individualmente en su uso. Es muy sencillo, ¡seguro que muchos de vosotros ya lo conocéis!  
<http://munduki21.glogster.com/tutoriala/>



<http://marijeuraga.glogster.com/glogster-zertarako-3013/>

Ha llegado la hora de hacer el cartel digital. Para ello, reunid las producciones que habéis hecho en las dos lenguas y comenzad a editar el cartel. Cuidad la coherencia entre todos los elementos que insertéis, los enlaces.

La distribución de cada elemento es tan importante, que antes de insertarlos definitivamente tenéis que discutir qué vais a colocar en cada lugar del cartel.

Cuando terminéis vuestros carteles, y antes de enseñarlos a la profesora, intercambiadlos con vuestros compañeros y haced propuestas para mejorar los carteles de los demás utilizando los siguientes indicadores de evaluación:

### Análisis del cartel digital

- Los elementos que aparecen en el cartel, textos, imágenes, grabaciones... están relacionados entre sí? ¿Tienen relación con el tema central?
- ¿Habéis recogido las producciones de las dos lenguas, entrevistas, normas de convivencia y eslóganes?
- ¿Es adecuada la distribución de los elementos que aparecen en el cartel? ¿Por qué? ¿Cómo se podría mejorar?
- ¿Es adecuada la cantidad de imágenes y textos ¿Por qué? ¿Cómo se podría mejorar?

Al terminar, repasad vuestros carteles en la pizarra digital y compartid las valoraciones de cada grupo. ¡Modificad los carteles antes de subirlos al blog!

**Actividad 8. Evaluamos lo que hemos aprendido.**

**A debatir con mis compañeros  
y trabajar en grupo**



**A valorar las diferencias entre  
las personas**



**A conocer y aceptar las  
normas de convivencia**



**A elaborar normativas de  
modo adecuado**



**¿Has trabajado en la  
unidad?**



**¿Te ha gustado el trabajo  
hecho?**



**¿Vas a respetar las  
normas de convivencia?**